

NIRE TXIKITAKO AMETSA

Txikitatik izan dut amets hau. Telebistan, youtuben... ikusten nituen bideoak eta argi nuen nik horietako bat izan nahi nuela.

Lan, esfortzu eta sufrimendu handien ondoren hainbeste desiratutakoa iritsi da.

Tapizean nago, nire izena esan zain, jende guztia niri begira... Kirol honek emandako lagun eta sentiarazitako sentimendu guztietan pentsatzen ari naiz...

Hainbeste algara, malko, urduritasun, haserre, ilusio... Ondo edo gaizki atera daiteke, baina txikitatik itxaron dudan momentu hau disfrutatuko dut, ametsak betetzeko baitaude. Nirea bete da. Hau, hasiera besterik ez da, ibilbide luze baten hasiera.